


BILTARI GIGANTEA

Luis F. Berrondo




MUNDUAN aurkitzen den animalia harrigarrienetako bat ezagutuko dugu: elefantea.

Taldean dagoe-nean, mantso, lasai, bere handitasunaren jabe, elefantea lautadatan zehar dabil. Badaki beste edozein animalia bera molestatzeko gai ez dela eta horregatik bere jarreak segurtasuna irradiatzzen du. Tronpaz, alde batera eta bestera, guztia ukitu, hartu, gidatu, etab. egiten du. Lur zabalen jabe da. Hala eta guztiz ere, ez zaigu leku batean finkatuko. Benetan nekaezina da. Beste zenbait animaliak ez bezala, ez du aski lurrarde zehatz eta mugatu batekin. Era batera edo bestera lurrarde guztien jabe izango balitz bezala jokatzen du, presarik gabe, inolako larritasunik gabe zeharkatuz.

Elefantearen bolumenak harri eta zur uzten gaitu; masa guzti horrek sortzen duen potentzi impresioagatik gehienbat. Hala eta guztiz ere, guretzat bitxienda bere tronpa da.

Elefantearen tronpak funtziogasko betetzen ditu. Hain zuzen ere, gauza guztieta rako balio du: lan-erreminta da (adar garaiak biltze-



ko edo pisuak lekuz aldatzeko, elikadura lortzekoa edo ezezagun zaion gorputz bat haztatzeko), usain-apendizea, gorputza dutxatzeko urez edo hautsez betetzen duen tutua... Elefantea ez litzateke tronparen perfektotasunik gabe dena izango. Usaina hartzeaz gainera hainbat funtziogasko betetzen ditu. Animalia honen eboluzioan hauxe izan da zalantzak gabe gehien garatutako organoa.

Beraz, tronpa bere eskua da, baina oso esku berezia, zeren bertan dastamenaren eta usaimenaren zentzuak bait ditu. Hau da, bai, zalantzak gabe ingurunea haute-mateko erreminta aberatsa.

Elefante afrikarrak tronpa bukaeran bi ezpain ditu. Hatzamarren antzekoak dira eta hauekin edozer


gauza, txikia izanagatik, oker handirik gabe eta harritzeko urguritasunez eskuratzeten du. Alde batetik sentikorra da, baina bestetik zer-nolako indarra! Tronpa borra gogor bihur daiteke, izugarrizko kolpeak emateko edo bapatean zuhaitzak errrotik ateratzeko gai delarik. Tronpa jasota, airean isiltasunean datozen mezuak, haize-bolada edo usain moduan usnatuz biltzen ditu. Lehortetan tronpaz lurrazpian ura aurki dezake, iturri berriak irekiz eta beste animalientzat mesedegarri izanik.

TRONPAREN mugimenduak azter ditzagun. Suge baten antzera norabide guztieta higitzen da eta forma guztiak hartzen ditu: kiribildu edo lasaitu, jaitsi (lurrazalean xagutxoren bat harrapatzeko) edo luzatu (zuhaitz altu baten goiko adarretaraino iristeko) egiten da. Beraz, tronpak edozein postura azal dezake. Organismo sentikor balioaniztun honen bidez, gorputz guztia (potentzia hutsezko masa) ondo informatuta dago ingurunearekiko.

Elefante afrikarrak oso nabarmenak ditu bere belarri handiak. Hauen funtzioa tenperaturaren oreka lortzea da. Animalia honek eguerdian jasandako eguzki beroa xahutzeko bere belarriak abaniko bihurtzen ditu. Belarriak hodi kapilarezko saretxo itxi batez osatutik daude eta hauen bidez ba-



Elefante arra
emea estaltzen



Elefantea eta bere tronpa. Bikote banaezina

rruan metatutako bero-sobera kanporatu egiten du. Aldiz, berorik egiten ez duenean, belarriak geldirik eta gorputzari itsatsita eduki- tzen ditu.

HAIN gorputz handia manten- tzeko (pisua sei tonakoa da) eli- kagai-kantitatea ez da txantxeta- ko gauza. Elefanteak egunero 300 kg elikagai behar ditu. Hori izan dait- teke animalia honek ibil- tari izateko duen arrazoia. Geldikorra balitz, elefan- te-talde batetik azkar agor- tuko lituzke leku bateko baliabide guziak.

Elefantearen hankek tin- koak eta monolitikoak diru- dite; lau zutaberen modu- koak. Hauek ere eboluzio handiko atal kontsidera dit- zakegu. Hanka hauei esker edozein motatako lurretan ibil daiteke. Hanken azpi- kaldea irregularitasun guz- tiera egokitzen da eta horrela masa guzti horren oreka se- gurtatu egiten du. Ez da ha- rrigarria elefantea malda la- tzetan higitzen ikustea. Ez- nezkoa zaio ordea jauzi egi- tea.

BESTALDE, anima- lia honek igeri egiten ere badaki. Ura gogokoa du eta bainua errito bihurtzen du. Maiz taldea ur- putzu apropos batera joaten da eta han elefanteak itzulika ibiltzen dira; dutxatuz, jolas- tuz... Gogoko gauza dutela argi baino argiago dago. Ibaia edo lakua sakonegia bada, tronpa jasota arnasa har dezake gorputz guzia urazpian duelarik.

Esandako guzia kontuan izanik, argi dago elefanteak ohitura sozial garrantzitsuak dituela. Nor- malean taldea osatzen dute. Taldeko buru ez da ar bat izaten; eme bat

baizik, eta hauetariko zaharrena gainera. Honek bere aginpidea errespetatzen duten guziak gida- tzen ditu. Arrak besteengandik (eme eta gazttxoengandik) urrun samar bizi dira.

Bestalde, elefante bakartiak ere badira. Gehienetan taldea utzitako zaharrenak izaten dira. Azken hauek ez dituzte beren senideekin harreman guziak galtzen. Elefante zahar eta bakartiari, gazteren batek laguntzen dio, eskolta emanet.

Bere bolumen, indar eta pisua dela eta, elefantearen erasoak be- netan beldurgarriak dira. Bain- nork atera proboszideo hau bere nagikeriatik? Inork ala ezerk bere lasaitasuna edo ohiturak apurtzen baditu, gauza beldurgarria gerta daiteke. Beste animaliek hori badi- kite eta arazorik sortu ez dadin ez diote inolako oztoporik jartzen. Baten batek ausardia agertuko ba- lu, elefantea prest agertzen da borrokarako. Horretarako bere tronpa eta letaginak erabiltzen ditu.

Zaila da hauen beharra izatea. Gehienez ere nahikoa izan ohi da mehatxuzko orroe edo keinua, ala erasotzeko asmoa erakustea, etsai ausartak hanka egin dezan. Beraz, indar-itxura horrek etekin ona ematen du.

Borrokarik ez da hasten eta lehoi, leopardo eta beste hainbat etsai “konbentzituta” gelditzen da;



Elefante arrak borrokan

elefanteari aurka egitea zorakeria ikaragarria bait litzateke.

Dituen letagin eder horiek, benetan ez dira letagin; ebakortzak baizik. Gi-zalditan zehar animalia hau hiltzeko arrazoi nagusi izan dira. Bolia! Afrikako leku basatiengak gurutzatzen ziren bolia lortzeko. Ehiztariak oso ongi ordainduak izaten ziren ... Beti bezala animalia indartsu honek etsairik nagusiena gizakia izan du.

ZENBAIT herrialdetan, erraldoi hau animalia basati izatetik etxeko abere bihurtu dute, gauzak azkar ikasteko



Elefante emea eta bere kumea



Elefantea abereen artean “lankide”rik garrantzitsuenetakoa du gizakiak

duen ahalmenari esker. Bere baldintza egokiak batetik eta segurtasunak bestetik, bere garuna asko garatzeko balia-bidea eman diote. “Elefante-oroinena” esaerak argi uzten digu informazioa metatzeko duen ahalmena. Badirudi, bere psikismoa orekautua denez, egoera ezberdinetarako hainbat eta hainbat erantzun emateko ahalmena duela.

Halaber, elefantea abereen artean “lankide”rik garrantzitsuenetakoa du gizakiak. Horren adibide elefante indiarra da. Lurralde horietan gizakiaren

laguntzaile leiala eta behar-beharrezko da.

Elefante indiarra bere senide afrikarrarekiko ezberdintasun batzuk baditu. Ekialdekoa tamainaz txikiagoa da, belarriak askoz ere txiki eta bilduagoak ditu (haizagailu funtzioa ez bait dute ia betar behar), emeen letaginak ez daude agerian eta arrak afrikarrarenak baino askoz ere apalagoak ditu. Proboszideo indiarra etxabere arrunta da, garraio eta zerbitzu-mota askotarako erabiltzen delarik.

INDIAN, herri-kirol zaharrenetako bat elefanteen arteko borroka da. Proboszideoak akuilatuz eta zirikatuz, animalien izaeraren aurka, boroakan ipintzen dira. Horretarako gizakiaren partehartzea beharrezko da, zeren hauetan senideen arteko borrokei uko egiten bait diente.

Lerro hauen bidez, bitxikeria batzuk ikus eta ikas ahal izan ditugu. Proboszideoa kreazioko animaliarik ohoretsuenetakoa dugu. Horixe da gure ELEFANTEA. 